



EGOERA

Euskal gazteria jendartean kokatzen den kolektibo espezifikoa da eta, euskal jendartea bezala, kolektibo hau ere anitza eta zabala da. Kolektibo batez ari gara, ez garelako arlo edo eremu zehatzean kokatzen den gazteriaz ari. Eremuz eremu arazo zehatzak dituen kolektiboa izateaz gain, Euskal Herriaren bizitza politiko, sozial eta ekonomikoaren garapenak bete-betean eragiten dien sektorea da. Beraz, ez dira “hor” dauden gazte bat edo bi, arazo bat edo bi dauzkatenak: gazteok zapalkuntza integrala jasaten dugu, aurpegi eta egoera ezberdinekin mozorrotua, eta horregatik, honen aurrean irtenbide integralak behar ditugu. Beraz, gazteria zeharkako eran landu beharreko esparrua da, aldaketa politiko eta sozialaren bidean motorra izango den gazteriaren etorkizun duina gaurdanik eraiki eta bermatzeko.

Zentzu honetan, EH Bildutik apustu garbia egiten dugu: Euskal Herriko gazteen oraina eta geroa bermatuko dituzten politikak proposatu eta egikaritu behar dira, arlo guztietan, iraunkorki eta haien behar eta nahien arabera. Bere gazteria zaintzen ez duen herria gaixo dagoen herria izango da. Horregatik, gazteok gure hitza entzunarazi eta kontuan hartzen denaren bermatzaileak izan behar gara.

EH Bilduk, EAeko gazteen beharrak kontuan hartuz, eremu guztietan haien egoeraren jabetun izan, eta horren aurrean erabaki sendo eta ausartak hartzeko konpromisoa hartzen du. Gazteen arazoak jendarte osoaren arazo bilakatzeko lan egin behar dugu, “gazte betaurrekoak” erantsiz, herri honen geroa murriztuko duten kide guztiongan. EH Bilduk, beraz, emango dituen aurrerapausoak, planteatuko dituen aldaketak, eta aplikatuko dituen neurri berri guztietan gazteen beharrezan kontuan hartzeko konpromisoa hartzen du: egoera irauliz, gazteria herri honen birrikak bilakatuz. Aldaketa politiko eta sozialaren lehen lerroan kokatuta, gazteriak ezinbestekoa du bere bizi ereduaren aspektu guztietan erabakitzea.

Eta horregatik, gure helburu nagusia gazte guztiei eskaintza zabal eta integrala egitea da, guztion beharrezan bermatzen saiatuko den eskaintza, alegia. Gazteria burujabea izan behar du zentzu guztietan, erabakitzeke ahalmena eskuratuz, eta bere eredu propioak garatuz. Horretarako, helburu argiak jartzen dizkiogu Eusko Legebiltzarretik burutuko dugun jardun politikoari.

HELBURUAK

Esan bezala, gazteok burujabe izan nahi dugu zentzu guztietan. Erabaki nahi dugu gure bizitza eta gure herriaren etorkizunaren gainean. Gazteok, Euskal Herri askea eraiki nahi dugu, aldaketa horren motor bilakatuz. Horregatik, jarraian proposatzen ditugun aldaketa guztiak, helburu orokor horren aldeko bidean eginkoak dira.

Ezinezkoa izango da gure bizitzak sakonki hobetzea, egungo eredu kapitalista patriarkala errotik aldatzen ez badugu. Merkatuen eta kapitalaren mesedetara eraikitako sistema osoa deuseztatu, eta herritarron, gazteen, mesedetara begira eratutako sistema behar dugu. Honetarako, ezinbestekoa da gaurdanik gure bizi eredu eta filosofian aldaketak

ematen hastea, elkartasuna, aberastasuna eta lanaren banaketa, eta pertsonen arteko aukera berdintasuna izanik gure oinarritzko baloreak. Honekin batera, EH Bilduk martxan jarriko dituen politika ezberdin guztietan, gazte ikuspegia barneratua izango dutela bermatuko dugu.

Egiten dugun eskaintza filosofia horren baitan eginikoa da, baloreen iraulketa bultzatzeko asmoz, gazteen bizitzak hobetzeko helburuarekin.

NEURRIAK

1

GAZTERIA IZAERA ESTRATEGIKOZ LEHENDAKARITZAN KOKATU

2

ENPLEGUA

Hemen agertzen den proposamenarekin gazteen prekarietate egoerarekin amaitzea da xedea. Orain arteko norabidean mugarrria ezarri eta enplegu duina sortzeko berehalako neurri zuzentzaileak dira.

Gazteei begirako enplegu politikak gazteriaren ordezkariekin eta gazteen parte hartze zuzenarekin egitea izango da gazteen benetako beharrei erantzuteko abiapuntua. Hala nola Euskadiko Gazteriaren Kontseilua zein bestelako gazte eragileekin harreman zuzenak eginez.

Gazteen enplegua eta laneratzea laguntzeko berme bezala gazteria lege bat beharrezkoa da, gazteak prekarietatetik atera eta bizi baldintza duinak izan ditzaten bermatuko duena.

Aholkularitza eta laguntza zerbitzu integrala. Gaur egun informazioa ez dago edonorentzat eskuragarri eta dauden zerbitzuek ez dute behar bezalako arreta eta laguntza zuzendua ematen. Honen aurrean gazte guztientzat eskuragarri izango den zerbitzu integrala sortu behar da, bakoitzaren egoera pertsonaletik abiatuz dauden aukera eta aholkularitza eskainiz alor ezberdinetan.

- Laneratzeko aukerak
- Ekintzaileentzat aholkularitza
- Formazio eskaintza bideratu
- Laguntza eta prestazio sozialak

Ikasleak laneratzeko asmoz ikasteko praktikaldiak bermatzeko lankidetzaren proiektua; lanbide heziketa, unibertsitate eta enpresa sarearekin elkarlanean.

- Edozein ikaslerentzat eskuragarri ikasketa eremua dena delakoa izanda ere
- Formazioa ezin da izan gastua ikasleentzat (dieta, garraioa... ordainduak)
- Lanpostuak ordezkatzeko praktiketako ikasleak erabili ez
- Praktiketako denborak gizarte segurantzaren kotizatua

Lehen lan esperientziak, laneratzea

- Egungo programak eraldatu. Lan prekarioa, formakuntza kontratu etengabeak edota ikasteko izan beharko liratekeen lan egiteko beka bezalako politikak alboratuz gazteentzat lan duina sortzeko politikak sustatuko ditugu.
- Errelebo kontratuak sustatzeko programa eta subentzioak

Etengabeko formakuntza

- Hizkuntzak ikasteko programa eta diru-laguntzak- Formazioa ezin da izan gastua ikasleentzat (dietak, garraioa... ordainduak)
- Gazteentzako formakuntza programa berezituak
- 12 hilabete baino gehiago langabezia dauden gazteei begirako formakuntza planak dohainik

Prestazio sozialak jasotzeko erraztasunak

- Gurasoen etxetik kanpo errolatua egoteko baldintza ezabatu
- Behin prestazioak jasota inoiz ez da itzultzeko eskatuko
- Emantzipatzen laguntzeko prestazio berezituak

Emigrazioa ez dadila behartua izan. Gazteek beraien herria uztera behartzen dituzten neurriei aurre egiteko enplegu politikak sustatuko dira. Horrez gain atzerrira lanera joandakoentzat itzultze planak bultzatuko ditugu.

- Diru-laguntzak jasotzeko sortzen diren oztupoak kentzea

Aniztasunak errespetatu, balioan ipini eta diskriminazio egoerak gaitzetsi eta salatu

- Genero aniztasuna, aniztasun sexuala, jatorri aniztasuna, ideologia aniztasuna...
- Lan munduan: sarbidean, promozionatzerakoan, formazioan... aukera berdintasuna.
- Lan berdina soldata berdina, soldata diskriminaziorik ez.
- Sistemak ezarritako sexuen arabera lan banaketarekin amaitu
- Etxeko lanen zein zaintza lanen aitortza

Ekintzailetasuna.

- Ekintzailetasun eredu konpetitiboaren gaintik elkartasun pertsonala zein komunitarioa sustatuko ditugu
- Ekonomia sozial eta kooperatiboaren ereduak sustatu
- Lehen urratsak emateko babesak, promozioak, dirulaguntzak eta aholkularitza bermatzeko proiektuak abiaraziko ditugu. Ereku lokalera egokituak, udal, mankomunitate eta aldundiekin elkarlanean.



GAZTERIAREN LEGEA

Proposatzen ditugun aldaketa guztiak eman ahal izateko, Euskal Gazteriaren Lege berri baten osaketa proposatzen dugu. Honek, arlo guztietan gazteei begirako neurriak martxan jarriko direla ziurtatu beharko du, gazteriaren eskubideen bermerako erabilia izango dena.

Bertan, eremu guztietan gazteen beharrezkoak asetzeko minimoak ezarriko izango dira, ezin urratuak izango diren eskubideak barneratuz. Lege honen osaketa, euskal gazteriaren diagnostiko zabal batekin edukiko du hastapena, egungo gazteen errealitatea zein den ezagutzeko asmoz. Behin problematika ezagututa, dauzkagun behar eta gabeziak identifikatuta, eta beraz konpontzeko asmoarekin, prozesu parte-hartzaile baten bitartez osatuko genuke legea.

Prozesu parte-hartzaile hau aurrera ateratzeko helburuarekin, ezingo da inola ere ez Euskal Herrian dauden gazte eragilerik kanpoan utzi, eta nola ez, EGKren inplikazio zuzena beharko da Gazte legea aurrera eramateko eman beharko diren pauso guztietan.

4 DIRU-SARRERA BERMATZEKO ERRENTA (DBE)

Ezin dugu ahaztu Diru-sarrera Bermatzeko Errenta legea egin zenean izugarrizko aurrerapausoa suposatu zuela euskal gizartearentzat, baina egia da gaur egun gazteriaren egoera ikusita eta lan munduko lan-baldintzak gero eta kaskarragoak direla ikusita, eta gazteen emantzipatzeko eskubidea irmoki defendatzen badugu, ezinbestekoa dugu gazteei horretarako baliabide egokiak jartzea.

Baina DBE a soilik 23 urtetik gorako gazteek eskatu dezakete. 16 urtetatik aurrera lanean jartzeko eskubidea badugu ere (beste hainbat eskubide eta betebeharrekin batera), eta 18 urtetatik aurrera eskubide osoko hiritarretan bihurtzen bagara ere, urte luzez DBEko sistematik kanpo geratzen gara. Hori dela eta, 18 urtetara jaitsi behar dugu.

5 HEZKUNTZA ETA IKASLERIA

Ikasle burujabeak heziko dituen hezkuntza sistema erdiestea da gure helburua; pertsona aske, kritiko, ahaldun, solidario eta euskaldun eleaniztunak alegia.

Bide horretan, ikasle kolektiboak, hezkuntza komunitateko partaide eta ardatz gisara, subjektu aktibo izan behar du hezkuntzako legeen eraikuntzan, dagokion parte hartzea ziurtatuz.

Hortaz, helburuetako bat izango da ikasleriarekin lanketa parte-hartzaile eta demokratikoa gauzatzea ondoko eremuetan:

Egun indarrean dugun sistema eraldatzeko sortzea proposatzen dugun dinamiketan; besteak beste, Euskal Eskolaren Hezkuntza Akordioan, Eskola Kontseiluan eta LOMCE ez aplikatzeko elkarlanerako mahaian.

Lanbide Heziketan: LHko legearen eta LH euskalduntzeko plan estrategikoren diseinuan eta garapenean.

Unibertsitatean: Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua bertan behera utzi eta araudi berriaren diseinuan. Era berean, Unibertsitate legearen diseinu eta garapenean.

Aisialdian: Aisialdia hezkuntza prozesuaren parte gisa aitortu eta hezkuntza sistemaren baitan integratzearen lanketan.

Hezkuntza publikoa eta doakoa bermatze bidean progresiboki urratsak eman nahi ditugu hezkuntzara bideratutako aurrekontuak handituz, beka sistema hobetuz eta tasen desagerpenerako urratsak proposatuz.

6 MUGIKORTASUNA

Euskal Herrian, egungo garapen-ereduaren iraunkortasun ezan garraioak duen eragina nabarmena da. Errepide bidezko garraioaren nagusitasunak (autoak pertsonen garraioan, zein kamioiak salgaien garraioan) areagotu egin ditu gizarte, ingurumen eta ekonomia arazoak, esaterako: natura-baliabideen kontsumoaren gorakada (lurzorua eta energia, bereziki), emisio kutsagarriak, klima aldaketa, zarata, istripuak, espazio publikoen galera eta segurtasun eza. Kontuan izan behar dugu egungo garraio-ereduak zulora garamatzala, geroz eta urriagoa den baliabidearekiko (petrolio) erabateko mendekotasuna aintzat hartzen badugu.

Horrenbestez, EH Bilduk beste mugikortasun-eredu baten alde egiten du; eredu berri horretan, pribatuaren gainetik publikoa gailenduko da, eta garraio-azpiegiturak sustatzeko eta gauatzeko prozedura zuzena gidatuko duten printzipioak arrazionaltasunean, gardentasunean eta belaunaldien arteko elkartasunean oinarrituko dira.

Hau guztia lortzeko helburuarekin, datorkigun belaunaldietan sustatu beharreko eta bultzako beharreko garraio-politiketan jarri behar dugu indarra. Hau da; haur, nerabe eta gazteetan garraio-kultura jasangarriago bat sustatu behar dugu, politika publikoak eta garraio publikoari beharrezkoak diren politikak aplikatuz.

Eusko Jaurlaritzatik sustatuta, Nafarroara, Ipar Euskal Herrira eta euskal diasporara begira gazte langileen formakuntzan onuragarria izango den herrialdeen arteko mugikortasuna bultzatuko da, behar diren hitzarmenak indartuz erakunde publikoekin zein erakunde pribatuekin.

EAEko garraio publiko ezberdinen erabilera erraztuko duen txartel bakarra bultzatuko da, gazteentzat zuzendutako txartel subentzionatu bat eskainiz (Gipuzkoako MUGI txartelaren antzera, 5 eta 25 urte artekoentzako zuzenduta eta kargatzen denaren %14a hobari gisa emango lukeena.

7 ETXEBIZITZA ETA EMANTZIPAZIOA

Euskal Herrian indarrean dauden lege arau desberdinek, pertsona orok etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea duela jasotzen dute, baina errealitatea oso bestelakoa da. Lehen mailako behar eta eskubide bat den arren, gaur egun etxebizitza izatea luxuzko ondare izatera pasa da.

Etxebizitza ezin da utzi merkatuen eskura bakarrik, honek jendartearen parte bat babesik gabe gelditzea ekar baitezake. Eremu honetan jardun beharra dugu beraz, kontuan hartuta etxebizitzari lotutako gainerako aldagaiak baldintzatuko dituela. Jardun publikorik gabe, ez da etxebizitzari lotutako zerbitzu publikorik izango, ez eta etxebizitza politika publikorik garatuko; baina batez ere, hori gabe ezin izango da garatu jendarteak (eta gazteriak bereziki) arrazoizko baldintzetan etxebizitza duinak eskura ditzan benetako eskubide eraginkor eta errealik.

Etxebizitza eskubide subjektibo bezala onartuta (hau da, etxebizitza eskatu daitekeen eskubidea dela onartuta) 18 urtetik gorako edozein pertsonak BOEren eskatzaile izateko eskubidea izango luke. Alokairu soziala bultzatuko da: sarrera minimo bat ez da kontuan hartuko poltsa hauetan sartzeko. Etxebizitza parke publikoaren gabezia dagoen bitartean etxebizitza pribatuaren erabilerrara joko da, politika hauek aurrera eramateko helburua behar adina etxebizitza publiko izatea izango bada ere.

Gazteen emantzipazioa zalantzarik gabe gure gobernuaren lehentasunetariko bat izango da, erdi mailako eta goi mailako heziketako eta goi mailako hezkuntzako ikasleentzat pisu sozialak eta konpartituak bideratuko direlarik. Ikasle bakoitzak bere bizitza era independente batean garatzea gain, nahi duen formazioa jaso ahal izan dezan, bere egoera ekonomikoa bere hezkuntza garapenean muga izango ez dela ziurtatuko duen gazteria eta etxebizitza politiken bidez.

Gazteentzat alokairu sozial berezi bat ezarriko da, gehienez soldataren %25a etxebizitza ordaintzera dedikatuko dutelarik, baina etxebizitzaren alokairuak berez bere soldataren zenbatekoa inoiz gaundituko ez duelarik.

Hezkuntza publikoan dauden ikasleen oinarrizko beharrak asetzeko (etxeko gastuak, garraioak,...) bitartekoak ezarriko dira. Hezkuntza pribatuko eskolak plan honetan sartzeko baldintzak aztertuko dira.

8 EUSKARA

Bidegurutzean gaude: euskararen egungo politika eta egitura juridiko hauskorrean jarraitzea ala euskararen politika aldatzea eta marko normalizagarri berria eraikitzea. EHBilduk euskararen esparru horretatik ahal den azkarren irten eta euskararen marko normalizagarri berria eraiki nahi du. Euskaraz oso-osorik bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politikoak, juridikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak lortu behar ditugu, hizkuntza politika berria eragiteko. Euskararen erabilera moteltzeko joera saihesteko eta irabazpidean jartzeko, euskara beharrezko bihurtzeko eta euskararen normalizazioa bideratzeko. Euskara jakitea unibertsalizatzeko, euskararen erabilera handitu eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko.

Programen sustapenean gazteria da kolektibo estrategikoa euskararen zabalkunderako, eta horregatik, gazteon iritzia behar beharrezkoa da hauek aurrera eramateko.

EAEko gazteoi instituzioetatik zuzendutako edozein mezu eta programa lehentasunez euskaraz egotea bultzatuko da. Honetarako, Eusko Jaurlaritzak, Diputazioak, udalerrak eta bestelako instituzioek normalizazioaren bidean sortuko dugun markoa bultzatuko da Gazte Legean.

9

PAREKIDETASUNA ETA ANIZTASUNA

Parekidetasuna bilatze aldera baloreen iraulketa bat burutu beharra dugu, heteronormak eta patriarkatua irauliz, internazionalismoa, kultura ezberdinen aniztasunaren aberastasunean, elkartasunean eta parekidetasunean oinarrituko dena. Zentzu honetan sentsibilizazio kanpainak burutuko ditugu, kontuan hartu behar baita iraultza horren garaipena emateko gazteriatik irten behar dela.

Gazte Legean barneratutako parekidetasun neurriak sortuko dira.

10

PARTE-HARTZEA

Gazte politika zehar lerroa izanik parte hartzea oinarritzko ideia izan behar da, are gehiago egun politika eta instituzioekiko dagoen urruntasuna aintzat hartzen badugu. Horretarako, batetik gazteriaren ahotsa gai guztietan ordezkaturik egoteko eta modu honetan beharizan guztiei erantzuteko bideak ireki behar dira. Eta bestetik, gazteria ahaldundu ahal izateko egin behar den eskaintza benetan eraginkorra izateko. Guzti honetarako mekanismoak jarri behar dira gazteok politikan era normalizatu eta aktibo batean parte hartzeko. Parte hartzearen oinarri garrantzitsuena gazteok gazteontzat zuzendutako neurriak hartzea da. Parte hartzeko bideak gazteei egokituta egon behar dira eta ez alderantziz. Askotan ikusi dugu erabiltzen diren formatu, mezu, eta abarrek ez dutela gazteria erakartzen.

EGKren garrantzia indartu eta eragile desberdinen elkargunea izateaz gain, EGKren lotune izaera azpimarratu beharra dago. Beraz, lotune izaera izan behar duen erakunde honen bitartez bai eragileekin, eta baita norbanakoekin parte-hartze prozesuak zabaltzea behar ditugu erabakiak ahalik eta ikuspuntu anitzenenetatik eta zabalenenetatik hartuak izan daitezen.

Proiektu esanguratsuenentzat NUP prozesuaren bitartez, gazte ezberdinen inplikazioa bermatuko da. Zentzu honetan lehenengo urratsa GAZTERIAREN EGOERAREN DIAGNOSI ERREAL bat egitea izango da.

Parte-hartze dinamika bezala ulertzen dugu herri mailatik Nazio mailara abiatuko den prozesu anitza (hitzaldiak, foroak, inkestak) eta eragileei zein norbanakoei irekia.

11

KULTURA ETA AISIA

Gazteria gizartearen parte aktiboenetarikoa delarik, eta benetan herritar askez osaturiko gizartea eraiki nahi badugu, kultura libre eta gazteria libre sustatuko dituen politikak jarri behar dira martxan EAEn.



KULTURA SORTZAILEA ETA EKOIZPENA

Gazte kultura eragileak nahiz norbanakoen iritzia kontutan harturik, sortze eta ekoizte kulturalaren esparruaren diagnostia eta errealitate hori hobetzeko-iraultzeko-aldatzeko behar diren politika berritzaileak bultzatuko dira.

Gazteei begira egitasmo herritar eta kulturei jarraipena egin kultur esparruko sorkuntza, produkzio, ediziorako eta zabalpenerako bideak irekiz.

Eredu alternatibo propioak sustatuko dituzten mekanismoak martxan jartzeko programak egokitu eta berrituko dira, gazte sortzaile zein kultur gintzan dabilzan gazteen inplikazioa bultzatuz:

- Copyleft-aren aldeko apustua egingo dugu, ekoizpenaren eredu berritzaileak ekoizpenetik hasia oinarritzeko ulertzen dugulako.
- Krisialdi sistemiko honen markoan, autokudeatutako proiektuak bultzatzeak berebiziko garrantzia du, laguntza kolektiboa indartzea helburu.

Sormena sustatzeko eta bultzatzeko bideak eskainiko dira, ekonomikoak, azpiegituren bidez, zein gune komunak ideien deskargarako eta kultur munduan dabilzan gazte sortzaileak eta ekoizleak ezagutu ahal izateko SARE bat osatzeko helburuarekin.



KULTURA HARTZAILEA

Kultur sortzearen eta ekoiztearen gazteen inplikazioaren inguruko hausnarketak zabalduko ditugu, ekoizpen eredu berrien informazioa eta sentsibilizaziorako programa zehatzak sortuz.

Kultura hartzailetik sortzaile edota ekoizle izateko bideak zabalduko ditugu gazteek inizatiba har dezaten kultura aniztasunaren lanketan.



AISIALDIA

EGKren bitartez aisialdiari zuzendutako elkartegintzari babes gehiago emango zaio.

Balore hezitzaileen lanketan diharduten aisialdi taldeekin elkarlana bultzatu eta hitzarmenak sinatu.



GAZTE KULTURA GUNEAk: AUTOKUDEAKETA OINARRI

Gaztetxeak Euskal Herriko herri eta auzo askoren pizgarri eta motor kulturalak dira. Gaztetxeen inplikazioa eta errekonozimendu zuzena proposatzen dugu sorkuntza eta ekoizpen prozesuan, diru-laguntza eta SARE baten sorreraren bitartez.

Gaztetxeen SAREa indartzearen hurrengo neurriak proposatzen ditugu:

- Gazte gune autogestionatuak bultzatu aldera neurriak hartuko dira, adibidez lokal publikoen ematea.
- Gaztetxeen sarearen sorrera, beraien zabaltzea sustatzeko eta gizarteak berauen ezagutza izateko.
- Bere lanaren eta sormenaren ondorioz lortutako kultura kapitalaren difusioa bultzatuko da.



MUGIKORTASUN KULTURALA: HERRIAREN EZAGUTZA SUSTATUZ

Gazteei zuzenduta plan berezi bat jarriko dugu martxan, zeinak helburu bezala izango duen Euskal Herria ezagutaraztea ematea gazte jendearen artean. Horretarako baliabide ezberdinak eskainiko ditugu, tartean aterpetxeen eskaintza hobetzea baita hauen dibulgazioa ere.

Bono bat martxan jarri aterpetxeak, ondare kultural guneak, aisialdi jarduera ezberdinak eta garraioa, besteak beste barneratuko dituenak.

Aterpe sare bat bultzatu, aterpeak gazteei ireki, ez daitezen “luxuzko hotelak” izan. Aisialdi talde, gaztetxe, kolektiboentzako... prezio jasangarriak adostu.



KOMUNIKABIDEAK ETA KOMUNIKAZIOA

Gizartearen eta gazteriaren arteko komunikazioa zuzena eta argia izan behar da, eta horretarako instituzioek erabiltzen dituzten tresnak eta komunikabide publiko naiz pribatuek gazteen ikuspuntua txertatzea ezinbestekoa da.

Gazteen arteko elkarrekintza sustatuko duen gune bat sortuko da Interneten.

Gazteak, eta batez ere gazteen arazoak ikusgai bilakatzea garrantzitsua da eta zentzu horretan komunikabide publikoek egin dezaketen lana nabaria da. Horregatik eguneroko programazioan gazteriaren presentzia bermatuko dugu.

Gazteentzako programak bideratu: hezkidetzak, parekidetasuna sustatuko dutenak, euskal komunikabideen ordutegi propioa, haur-gazteen beharrak aseko dituenak, bai telebistan zein irratietan.